



## Pedro Antonio Añibaño Aitaren Euskerazko eskuidatziak

Arantzazuko Prantzikotaén liburutegian, oraindiño argitaratu barik, baña argitaratuteko gertatuta, Añibaño Aitaren MISIONARI EUSKALDUNA deritxon eskuidatzi eder bat aurkitzen da.

Bakotxa bost-eun oírialde inguruko liburu bi dira. Bertantxe, Kristiñau Ikaibidearen lau zatiak, itzaldi antzeria, azalduta dagoz: ganera Andra Mariaganako zaletasunaz itzaldi bi eta aingeruai buruz beste bat. Ona emen liburu bi onek zelakoak direan:

SÁRERA: Vici bedi Jesus. / Misionari Euskalduna. / Cristiñau-Dotrina, ta Sermoiac Bizcai-errie/tan irakasten. / Lenengo Zatia. / A. Fr. Pedro Antonio Añibarro, Zarauzco Colegio / A. San Franciscoren Ordeaco Misionisteac atereac / eta predicatuac. / Bear dan legez. /

Liburu bi, 22 eunki luzera ta 16 zabalera: lenengoan 9 oírialde eromatar zenbakiz zenbatuta. Oírialde onetan ADIBIDEA eta IDOROGARIA daukaz: gero oírialde batzuk idatzi barik eta 498 idatzita: azkenez egilearen izena ta ziñi-maña ta oarpen laburtxo au: *Uurrengoa liburuau jarraituko dira ganeko Dotrina, ta Sermoiak.*

Bigařen liburuan lenengoan lako idazpuru ta saŕera daukoz. Idorogariak orialde bi ta liburuko gaiak 442 beteten dabez.

*Gurutze Santearen / Aita gure ta Ave Marien / ganeko eracusaldiac / egile berberarenak eta Elosu' tar F. Irarkolan, 1897-ko urtean, Durangon argitaratuak, Añibařo Aitaren eskuidatzi ontatik aterata dagoz.*

Argitaratutako idazti onek, gauza onetzaz Misio-NARI EUSKALDUNAK daukanetik, erdia baño ez dauko.

Añibařo Aitak idazti au argitaratuteko euki ebazan zioak ta elburua, irakurleak jakin dagiazan, oso osorik jařiko dot emen bere ADIBIDEA.

## ADIBIDEA

Esquer-mesede asco eguin, ta maitetasun andia eracusi deusten Sacerdote jaun batsuc esan deuste, on andi bat eurari, euren Elestarrai ta erri euscaldunai egungo deutzedala, baldin neure Misiñoetaco Dotrina ta Sermoiac moldera emoten baditut. Ezneban uste, onembeste zorionera, ta aimbesteen escuetara, beguien aurrera, ta arguitara urten ta aguertu bearco ebala nire ume pobre umil onec: bada bestela, bere jaiotzan ifinico neban apainduago, galantago, obeto ta ederrago janciric; eta barriz orain ez dot astiric, eperic, lecuric, ederrago ateretaco guztiengoa aurrera.

Dan dan au or doa nola nai, zucen edo oquer, bere atal zati urratu adobatuacaz. Batac ezpada, besteac chera moduzcoaz, arpegui arguiaz, gogo onaz, pocic, ta borondate maitetsuaz ostatua emon, echeratu, beguiratu, agur ta ondo-etorría emongo deutse.

Ori nire poza, ta atsegifia; baňa aregueiago, arima bat beronen bidez, ta bitartez irabazten badot; pecatu bat bacarra eragozten badot: ta ni sepulturan lurturik,

atziturik, arrac janic nagoanean, onec badacar Jaungoicoa gana pecatari galdu, gaisto, oquer bat; edo iñor zaletutenean bádau ceruzco gauceetara.

Opa, ta esqueñiten ezteutsut emen gauza barriric: baña bai alcar batera baturic ta bilduric, libruric gueienetan idoro dodazan Dotrinaric onenac, bearrenac ta seguruuenac; necazari buru guichico batec uler-tu, ta aditu leizan erraztasunaz. Onetan eguiñ dot, loratic lorara dabillan erle batec eguiñ daroana, bere ezti gozoa maneaututeco; ta eguiñ oy dabena jardin lorategui baten sartuten danac, lora-sorta eder bichi-garri usaintsu bat eguituteco. Contuzco aleguin ardu-ratzco, ta beguiramentuaz ibilli nas, ez ifinteco Dotrina estueguiac, ez zabaleguiac; bai ta eusquerea bere izan eztidin entero goratua, ez chito bee nastu prestueza.

Emen doian eusquera guztia, neuc enzuna da Bizcaiko errietan non edo non; eta euscaldun oytu on garbi batec guztia adituco dau. Baña orrez guziaz uste eztot, guztien gustura, ta erri guztien erara joango direala, ez eusquerea, ez Dotrinac. Berba eguite lucean uts-eguite asco izan oy báda gacer aimbeste Dotrinetan?

Baderichazu, Dotrinac direala luceeguiac, besteen aurrean iracurteco, laburtu ciñeiz, azquenduric ta largaric non nai, guero beste bein andic jarraituteco: báda onetaraco ifini dira berariaz §. §. ta bazterreco numeruac 1. 2. 3... Dotrifia onen jarraian urtengo dabe Sermoiac, Jaungoicoac nai bádau: eta Dotrina eurotaric bere asco doaz Sermoiien antzera. Direanac ifinten dodaz Elexa Ama Santa, ta guizon jaquitunen juicio ta zucen bidearen azpian. Libru onetako uts-eguiteac nireac dira; ta gauza onac zor jacoaz Jangoico maite on guztien emolleari: berac bedeincatu, beretu, ta ceruratu gaizala guztioc. AMEN.

Arantzazuko liburutegi ontan bai-dago Añibaño  
Aitaren beste euskerazko eskuidatzi bat bere. Ona  
emen eskuidatzi onen idazpuru ta saíera:

ARZAI-ADIBIDEAC/ Illm.<sup>º</sup> Dn. Francisco Valero Tole-  
doco Arzobispo Jaunac bere/ Elestar, ta Ardiai zu-  
cenduac; adirazoteco guztiai, uste dan/ baño jaquinez,  
ta itsutasun gueiago idoroten dala egua/ ta sinisguei  
guztietan cristiñaun (sic) fededunen artean; albaitanez  
senda ditecen dirianac/.

Aldatu ditu Bizcai-euskerara Fr. Pedro Antonio  
Añibarroc/, Zarauzco Colegio Aita San Franciscoren,  
Ordeaco Misionariac/.

*Basabe'tar Koldobitka Aba.*

*O. Fr. M.*

---